



## Aldundiak muga naturalak dituzten zonetako eta mendialdeko eremuetako nekazaritza ustiategietarako 1.400.000 euroko laguntzak onetsi ditu

**Gasteiz, 2020ko martxoaren 25a.** Gobernu Kontseiluak onetsi du abian jartzea 1.400.000 euroko laguntzak, Euskadiko Landa Garapeneko 2015-2020 Programaren esparruan, muga naturalak edo espezifikoak dituzten lurralde historikoko zonetako nekazaritza ustiategietarako.

Laguntzaren helburua da kalte ordaina ematea mendialdeko zonetako eta mendiaz bestelako eremu behartsuetako nekazariei, nekazaritza ekoizpenak sortzen dituen zailtasunen ondoriozko diru galerak eta kostu gehigarriak arintzeko. Horrez gain, bioaniztasuna, natur balio handia duten sistemak eta Europako paisaien egoera leheneratzen, zaintzen eta hobetzen lagundu nahi du eta, horretarako, gure nekazaritza lurren eta horien mendeko ekosistemen eta paisaien zaintza eta hobekuntza bultzatuko du. Eremu behartsuek nekazaritza sistemak iraunarazteak, ingurumen balio handia izateaz gain, lurralde orekari eusten laguntzen du, hau da, sare sozioekonomikoari eta landa erkidego bideragarri bati bizirik eusten. Laguntzaren bidez, eten egin nahi da nekazaritza jarduna bazter uztea eta, horregatik, jarduera hori desagertzeko zorian dagoen zonetan eragin nahi da.

Horrez gain, neurriak lurzoruen higadura saihesten eta lur horien kudeaketa hobetzen lagunduko du, eta indartu egingo du nekazaritza jardun jasagarria mendialdekoak bezain zona behartsuetan. Mendialdeko nekazaritza sistemak zaintzeak ingurumen interes handia du eta lurralde orekari eusten laguntzen du.



## Foru Aldundiak milioi bat euro baino gehiago izango du ingurumen eta nekazaritzako laguntzetarako

Arabako Foru Aldundiak 1.130.240 euro izango du nekazaritza-ingurumeneko eta klimako laguntzetarako eta nekazaritza ekologikoko laguntzetarako, Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapeneko 2015-2020 Programaren barruan. Laguntza horien % 75 LGENF funtsen bitartez finantzatuko dira.

Laguntza deialdiak hainbat jarduera lagunduko ditu diruz, besteak beste: abelazkuntza ustiatagietako simaur eta minda eta ongarriketa planak; tratamendu fitosanitario arrazoituak; tokiko animalia arrazak kontserbatzea; lurzorua babestea zurezko landareen laborantzan, landare estalkia jartzearen bidez; biodibertsitatea zaintzea laborantzak txandakatzen diren lurretan; fauna babestea laborantzak txandakatzen diren lurretan; bertako babarrun ekoizpena; mendiko larreen aprobetxamendua kudeatzea, eta erlezaintza, eremu ahuletako biodibertsitatea hobetzeko. Gainera, aurten ere esne behien ekoizpen integratuaren aldeko apustua egingo da, ingurumenarekin abegitsua den azienda iraunkorra, jasangarria eta gizartearen beharretara egokitutakoa garatze aldera.

Hain zuzen ere, produkzio integratuari dagokionez, laguntzaren zenbatekoa laborantzaren edo produkzio sektorearen araberakoa da, eta, hala, esne behien kasuan, laguntzak hektareako 98 eurokoak dira, eta berotegiko barazkigintzaren kasuan, esaterako, 1064 eurokoak. Berdin samar gertatzen da ekologiko bihurtu nahi diren nekazaritzako eremuen kasuan: ereiteko patataren kasuan, saria hektareako 482 eurokoa da; esne ardien kasuan, aldiz, 63 euro/AzLU (azienda larrien unitatea).

## Aldundiak tokiko 5 erakunderen larrialdi lanak lagunduko ditu 350.000 euro baino gehiagorekin

Arabako Foru Aldundiak tokiko erakundeek ezustekoei eta larrialdiko obrei aurre egin diezaieten diru laguntza programa jarri du berriro martxan. Gobernu Kontseiluak 2020ko deialdiko lehen emakida onartu du, eta, horrela, administrazio batzorde batek eta lau udalek finantzazioa izango dute lan horietarako. Guztira, 350.000 euro inguru izango dituzte.

Alde batetik, Eskuernagako Udalak harri-lubeta indargarri bati ekingo dio, hodi eta sareta batekin batera, azken urteotan luizi batzuk izan diren landa bideko eremu batean ura eusteko eta xukatzeke, eta, gainera, eremu horrek gainezka egiten duen urak Errementari kalearen zati bat urez betetzen du, udal-baskularako sarbidea eta udalerrirako hegoaldeko sarrera den kalea.

Bestalde, Mainuetako Udalak bi jarduketa aurreikusi ditu herrigunearen barruan: lehena, San Bizente kalean lubeta txiki bat edo zimendu egoki bat egiteko, ibilgailuak eta pertsonak pasatzen diren eremuan, zeina, joan den azaroko azken euriteen ondorioz, erori egin baita, kalearen erabateko lur-jausia gertatzeko arriskua eraginez. Bigarrena, "La Teja" eremuan kanalizazio bat egiteko; izan ere, gaur egun dagoen bezala, eurite handiak gertatzen diren bakoitzean, ura beherago dauden etxe-eremu batera iristen da, eta horietan patio eta hezetasun putzuak sortzen dira.

Beste onuradunetako bat Lapuebla de Labarcako Udala izango da, La Fuente kalean euste bat egingo baitu, udalerrriaren irteeran, Assa herriarekin lotzen duen errepiderantz. 2019ko abuztuan izandako azken euriteekin, lubeta batera ematen duen kalearen eremua, zeinaren azpian olibondo bat baitago, hautsi eta erori egin da, eta berriro erortzeko mehatxua egin du, jarduera azkar bat egiten ez bada.

Aldundiaren laguntza izango du, halaber, Bilarreko Udalak, udalerriko parke publikoan dagoen hormaren zati baten horma berri bat egitea aurreikusten baitu, iturri publiko batetik eta haur-jolasen instalazioetatik gertu (zabuak, txirristak, etab.). Azken hori hezetasunengatik pitzatu da, harri eta lur batzuk saltarazi ditu eta hormaren alderen batean zuloak egin dira haren barrualdetik.



Arabako Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Álava

[www.araba.eus](http://www.araba.eus)

## Prentsa Oharra Nota de Prensa

Eta azkenik, Laminoria Haraneko Administrazio Batzarrak Aletxa kaleko eustorma konponduko du. Kale horretako eustorma bat konpondu nahi da, eragindako kalearen atzeko zoladurarekin.